Ez baduzu ondo ikusten e-mail hau, sakatu hemen

SAGARDUN
SAGARDOAREN BIZITZA · ASTIGARRAGA

Bazkide Boletina · Abendua 2012

## Sagardoetxeako Plan Zuzendariaren aurkezpena.

Abenduaren 13an Gruyere enpresak **Sagardoetxeako Plan Zuzendariaren museografiaren lehendabiziko zirriborroa** aurkeztu zuen. Sagardunen bileran adostu zen moduan, gonbidapena elkarte guztietara zabaldu zen eta Astiko Dendarien Elkartea, Herrikoi Auzo Elkartea, Hogar del Jubilado Galtzaur, Behemendi, etb... bileran izan ziren.

Oraindik ekarpen gehiagoren zain gaude eta aurrerago proiektuaren kokapenaren gaia landuko da.



## Abenduko zubiko bisitarien etorrera finkatu da Sagardoetxean.

Sagardoetxeak bisitarien kopurua finkatu egin du abenduko zubi honetan, eta iazko zubi bereko datuekin alderatuta, **%4ko hazkuntza** izan du aurten.

Bisitarien jatorriari dagokionez, Gipuzkoa eta Euskal Herritik etorri diren bisitarien kopuruak gora egin du. Hala, zubi honetan izandako bisitarien %76a Euskal Herriakoa izan da (%82 Gipuzkoakoa eta %18 Bizkaiakoa). Bisitarien %21 nazio mailakoa izan da, %2a Europarra eta %1 Amerikarra izan da.



## Santiagomendiko Sagardo Bidea eta Sagardoetxea komunikabideetan.

Azken boladan bi **telebista** saioren bisita jaso dugu eta jarraian ikus ditzakezuen erreportaiak grabatu dituzte:

- EKOGUNEA: Santiagomendiko Sagardo Bideari buruzko erreportaia.

- EGURALDIA ETB: Sagardoetxeari buruzko erreportaia.

Bestalde, Santiagomendiko Sagardo Bideari buruzko **artikulu** ezberdinak argitaratu dira Alemaniako medioetan:

- PRONATOUR BUSINESS & MARKETING.

- MAGAZIN TRENDS.




## Bazkideen albiste eta ekitaldiak Sagardun-eko Boletinean.

Sagardun Partzuergoko **bazkideek** sagardoaren kulturarekin erlazionaturiko zuen jardueraren inguruko **albiste edo ekitaldia boletin honetan** ezagutzera ematera aukera duzue eta zuen proposamenak bidaltzera animatzen zaituztegu.

Orain arte egin dugun moduan, albiste horiek www.sagardoarenlurraldea.com webgunean eta sare sozialetan argitaratuko ditugu.

SAGARDUN
SAGARDOAREN BIZITZA · ASTIGARRAGA

Kale Nagusia 48 - 20115
Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 331 311
info@sagardun.com
www.sagardun.com

2012 Sagardun. Todos los derechos reservados.

EUSKADI

TURISMO GIPUZKOA
HAIN TXIKIA, HAIN HANDIA
TAN PEQUEÑA, TAN GRANDE